

49 zauritu; horietatik 18 ingresaturik

BILBO

Donostiarako bidean Zornotzan izandako 24 autoren arteko istripuan 17 lagun hil ziren eta 49 zauritu. Hauetatik zenbaitu larri zaurituak suertatu ziren. Zauritutakoak anbulantzia zein auto partikularretan eraman zituzten Bizkaiko hiru ospitaleetara: Basurtu, Galdakao eta Gurutzeta. Zauritutako gehienak erredu-rak eta kolpeak zituzten eta 18 lagun hiru ospitaleetan ingresatuta zeuden.

Gurutzetako ospitalean 24 zaurituz arduratu ziren. Hauetatik hamarre ingesatuta jarraitzen dute; beste 14ri alta eman zieten. Basurtuko ospital zibilean, bestalde, 14 laguni eskaini zieten laguntza; hauetatik 4k ingresatuta jarraitzen dute.

Galdakaoko ospitalera, azkenik, 10 zauritu eraman zituzten, hauetatik 4 ingresatuta gelditu ziren eta beste 6 laguni alta eman zieten erredura edo zauriak ez bait ziren larriak.

Istripuan izandako hildakoen eta kasu batzuetan zauritutakoen erreskate lanek zenbait ordu iraun zuten, hauen gorpuak burdinen artean harapatatu geratu zirelako.

Kaltetutako auto batean bidaiatzen zuen emakume baten arabera, «ez zaigu ezer gertatu aurrean zeuden bi autoen aurka jo ondoren atzean zetozenek gurea jo eta errepidetik atera gaituztelako». Emakumeak ez zuen zauri garrantzitsurik izan.

Zauririk gabe ateratzea lortu duen familia bateko emakumearen hitzetan, «autotik irtetea lortu dugunean, su artean zegoen mutil bat ikusi ahal izan dugu, eskua luzatuz laguntza eskatzen ziguna. Nire eskua luzatu diot baina ezin izan diot heldu...».

Arratsaldeko lehen orduetan pertsona ugari abiatu zen istripua gertatu zen ingurura biktimen identitatea ezagutzeko asmoz. Hau ikusita Ertzaintzak ez hurbiltzeko eskatu zien lagun hauei, jendea pilotzeak oztopatu zitzaizkela erreskate lanak. Gainera, identifikazio lanak ez ziren autopistan bertan egiteko.

Luis Maria Larrea Bilboko apezpikuak doluminak adierazi zizkien hildakoen senitartekoei. «Lanean eta errepideetan izan beharreko segurtasunak biziaren balorearen aspektu bi dira, denok kontutan hartu beharrekoak» azaldu zuen gotzainak.



ANDER GILLENEA

Hogeikilometroko kotxe iladak

BILBO

Donostiarako bidean Bilbo Behobia autopistaren 102. kilometroan gertatutako istripuaren ondorioz, 20 kilometroko auto iladak sortu ziren. Istripu larria gertatu zen karrilean, auto iladak Bilboraino heldu ziren, Malmasineko tuneleraino hain zuzen.

Hogekitalau autoen arteko istripuan Donostiarantz zihoazen zenbait auto beste karrilera pasatu ziren, ondorioz, Bilbo Behobia autopistako bi norabideak moztu zituzten.

Istripuaren lekura hurbildu ziren ertzainek autopistaren ondotik igarotzen den 634. errepide nazionalera desbideratu zuten trafikoa. Hala ere, auto ilada eta ataskoak goiz osoan izan ziren, trafikoa desbideratzeko zeuden zailtasunak zirela medio.

Jende asko hurbildu zen atzo istripuaren tokira, senitarteko edo lagun bat istripuan kalteturik gertatu zen jakiteko. Opor jai egun hauek hasiera txarra izan zuten atzokoan, egun honetan jende ugari atera bait zen egunpasa edo atzo zabaldu zuten Durangoko Liburu eta Disko azoka bisitatzerako.

SEI suhiltzaile kamioi hurbildu ziren Erletxe aldera atzo goizeko istripuaren berri izan bezain laster. Hamabi anbulantziak ere bertara jo zuten SOS Deiak hartutako abisuaren ondoren. Helburua argi zegoen Ander Gilleneak egindako argazkian ikus daitekeenez: ahalik eta lagun gehienak salbatzea eta A-8 autopistan hedaturik zegoen sua itzaltzea. Lana ez zen erraza izan, gorputzak burdinen artean zeudelako, haietako asko erre erre eginda. Balantzea: 17 hildako eta 49 zauritu.


ISTRIPUA ORDUZ ORDU

- 10.35ak: Bi kotxe elkarren kontra jo zuten A-8 autopistan Erletxe inguruan.
- 10.40ak: SOS Deian lehen abisua jaso zuten. Segituan DYA zein Gurutze Gorriaren anbulantziak atera ziren bertarantz.
- 11.30ak: Hildakoen kopurua 9koa zela esan zuten. Kaltetutako auto kopurua ezezaguna zen.
- 13.00ak: Hildakoen kopurua 12ra igo zen.
- 13.20ak: Azken zaurituak ospitaleetara eraman zituzten.
- 14.00ak: 12tik 16ra pasatu zen hildakoen kopurua. Autoak: 24 kalteturik, horietatik 18 erabat kiskalita.
- 15.00ak: Hildakoen kopurua 17ra igo zen eta SOS Deia 18.00an abisua eman zuen. Auto batean zalantza bait zeuden hildakoak 2 edo 3 pertsona ote ziren.

Guztira istripuan 17 pertsona hildako, 49 zauritu horietatik 18 ingresaturik daude Galdakao, Gurutzeta, Basurtuko ospitalean, zauritutako bat Valderillako ospitalera eraman zuten.

Istripuan 16 lagun hil dira eta beste bat Galdakaoko ospitalean.

I. MARTIARENA



Istripua goizeko behe lainoak eragin zezakeen, lehen datuen arabera.

ANDER GILLENEA

Hondamendiek 600 hildako eragin dituzte Bizkaian azken mendean

BILBO

Herenegun Galdakaoko Unión Española de Explosivos (UEE) lantegian izandako eztanda eta atzo Zornotzan kotxe askoren artean izandako istripuarekin, hogeitazazkoak diren hondamendiak. Hauetan guztira 600 pertsona hil dira eta 500 inguru zauritu.

Leherketak, suteak, hondamendi naturalak, tren eta auto istripuak izan dira Bizkaian ezbehar hauek sortu dituztenak.

1894. urtean Lezama-Bilbo trenbidean izandako istripuaren ondorioz 13 lagun hil ziren. Urte batzuk beranduago, 1912. urtean, Bilboko zine areto batean izan zen suteak 46 haurren heriotza ekarri zuen. Aipagarria da baita ere, 1978an Ortuellako Marcelino Ugalde ikastetxean gas poltsa baten leherketak 51 haur hil zitueneko kasua.

Hondamendi naturalei dagokien

nez, gogoratu 1912. urtean izan zen itsas ekaitzak Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako 146 arrantzale hil zituela. Lubiziak sei heriotz ekarri zituen Bizkaia 1964 eta 1979an, etxebizitzak estali bait zituen. 1983ko abuztuko uholdeetan, berriz, 50 hildako izan ziren Euskal Herrian.

Herenegun Galdakaoko UEE lantegian istripuz hil ziren lau lagunekin, 25 pertsona dira guztira enpresa honetan izan diren leherketen ondorioz hildakoak. Azpimarragarria da 1967an Lutxanako lantegi bat lurreratzean izan zen hondamendia, 16 pertsona hil eta 14 larriki zauriturik gertatu.

Orain dela sei urte Oiz mendian hegazkin batek lurra jo zuen eta 148 lagun hil ziren. Tren istripuek ere sei hildako eragin dituzte azken hamar urteetan.

Dena den, atzo Zornotzan gertatutakoa, Euskal Herriko errepideetan izan den hondamendirik handiena da.